

Berrien gogoa eta esperientzia batuz

Alderdi sozialistak udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu zuen



Bihar,
larunbatetik
igandera arteko
gauean, ordua
aldatuko da:
goizaldeko
02:00etan
03:00ak
izango dira

Lasarte-Oriako PSE-EEK maiatzean izango diren hauteskundeetako zerrenda aurkeztu zuen atzo.

Zerrenda aurpegi berriak eta esperientzia duen jendeak osatzen duela azaldu zuen Jesus Zaballos alkategaiak.

Honela, Zaballosez gain, Iñaki Mujika, Nerea Artamendi, Txus Alonso, Lourdes Acevedo, Martin Moreno, Marisa Zubiri, Fernando Escoriaza, Nicole Palacios, Iñigo Alonso, Jose Rodriguez, Lupe Mazuela, Jose Luis Lopez Rioja, Mercedes Gonzalez, Julio Gonzalez eta Jacinto Hernandez dira PSE-EEK aurkezten duen taldean.

Zerrendako azken lekuan, "herriaren alde lan egin duen edo herriarekin zer ikusi handia duen pertsona joan ohi da," azaldu zuen Zaballos alkategaiak. Leku hori, Froilan Elesperen alarguna den Tomasi Pelazek beteko du.



PSE-EE alderdiak udal hauteskundeetara aurkeztuko duen zerrendako kideetako batzuk Jesus Zaballos alkategaiarekin.

Lan egiteko prest

Talde honek lan egiteko gogoia duela eta herria zuzentzeko ongi prestatutako jendea dela azpimarratu zuen Zaballosek. "Herritar ugari dago taldean eta gainera,

herrian elkarte desberdinetan lan egin dutenak gehienak," azaldu zuen.

25 urte hauetan alderdi sozialistako Gobernu Batzar desberdinek egin duten lana eta kudeaketa taldea honen

bermea direla azpimarratu zuen Zaballosek.

Horregatik, herritarrei haien konfiantza PSE-EE alderdian jartzeko eskatu zuen, "Lasarte-Oria garatzen jarrai dezan". •

Txakurrak eta legedia

Lasarte-Oriako txakurren jabeek Euskadin indarrean dagoen legedia ezagutu ahal izan zuten asteazkenean kultur etxean eskaini zen hitzaldian.

Honetan, besteak beste, animalien babesa, tratu txakurrak edo arraza arriskutsuei dagokien legeak azaldu zituzten "Noble y Fiel Amigo" elkartereko kideek.

Hitzaldi hau Udalak eta elkarteak hitzartutako txakurren jabeek eskaintako ikastaro teoriko praktikoaren hirugarren saioa izan da. Hurrengo, maiatzaren 25ean izango da. •



Herritar talde bat bildu zen kulturetxeko hitzaldi aretoan indarrean dagoen txakurrei buruzko legedia ezagutzeko.

UDALA/3

Lasarte-Oriako diru-laguntzen araudiari ekarpenak egin dizkio Ezker Abertzaleak

GIZARTEA/5

Arramazka taldeak abestia grabatu du Palestinan bertako Rim Banna abeslariarekin eta DAM taldearekin

dgag
ILE - APAINDEGIA - ESTETIKA

Gorputz-tratamenduak
Masajeak

... ETA GIZONENTZAT ERE BAI !



LEKU BERRIAN

Neure kabuz



Tsunamia

Japoniako tsunamiaren eta lurrikararen ondorioz gertatutako kalte personal eta material handiekin batera berriro etorri da gureru energia nuklearraren inguruko eztabaida. Sortzen didan beldurra alde batera utzita, nire barneko ekonomistak pentsatzen duenean, kostuak eta etekinak ikusten ditu. Etekinak garbi daude: badirudi beste energiak baino merkeagoa dela. Eta kostuak? Badirudi txikiak direla. Baina kostu guztiak kontuan hartzen al dira? Zer gertatzen da segurtasunarekin, hondakinekin, eta abar? Zentzuzko erabakiak hartzeko datu guzti-guztiak sartu behar dira kalkuluetan eta ekuazioetan, eta ez dirudi guztiz kontuan hartzen direnik (adibidez, Japoniako nola sartu?). Gaur irakurri berri dut istripu atomikoaren kostuak Japoniako hiritarren zergen bitartez ordainduko direla neurri handi batean, industria nuklearrak egin ordez. Zentral nuklearrak aseguruak erosten dituzte, baina ez dute guztia aseguratzeko (zergatik ote?): 1.000 milioi euroko estaldura gutxi gorabehera, eta hortik gorakoak aseguru-multzoez edo estatuek azken aukera gisa.

Beno, besterik ez ... Ah, bai!!! Nor izango da hurrengo alkatea? Badakit Pablo nire zutabekidea arduratuta dagoela niregatik galdera hau errepikatzen dudalako azkenaldi honetan (Pablo, ondo nago!), baina oraindik ere badaukat esperantzarik, itsasoak duela urte dezente izan zuten bezala: tsunami politikoa iristear dago.

Iñaki Erasquin

Zorion-agurrak



Sergio

Zorionak futbolari. 8 muxu pottolo guztien partetik



Nahia

Zorionak, egun polit bat pasa. Muxu bat aita, ama eta Alexen partetik.



Unai

Zorionak lau txokolatezko muxu familiaren partetik.



Irati

Zorionak zure bosgarren urtebetetzean aitona-amonaren partetik.



Haimar

Zorionak pirata. Txokolatezko lau muxu pottolo guztien partetik



Alaitz

Zorionak zure hamaiagarren urtebetetzean eta muxu handi bat familiaren partetik



Nataly

Zorionak sorgina. Zure gurasoen partetik hiru muxu haundi.



Gabriel eta Xuar

Zorionak zuen 91 eta 11. Urtebetetzeetan. Muxuak. Familia guztiaren partetik.



Oxan

Zorionak hi! Ez pentsatu hainbeste eta lasai ibili, urteak betetzea ez duk txarra eta!



Lucas

Zorionak aita ,ama, eta Sheenaren partetik.



Enara

Zorionak preziosa! Jarraitu orain bezain irribartsu! 3 muxu potolo aita, ama eta Intza.

Osptaleetara doan autobusaren ordutegia

Bidaiaren iraupena: 15 minutu

Lanegunetan	Lasarte-Oriatik irteera (Tajamar errotondatik)	7:30, 8:30, 9:30, 10:30, 11:45, 12:45, 13:45, 14:45, 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 20:00.
-------------	--	---

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Pisu bat behar dut alokairuan, Lasarte-Orian edo inguruko herritan. Harremanetarako telefono zenbakia: 667 808 934.

• Garaje plaza handi bat alokatzeko dut Atsoakarren. 60 euro/hilabetean. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115 (Jose Manuel).

• 116m2-ko aparteko pisua salgai, kultur etxearen parean. Guztiz berrituta dago. 3 gela, 2 komun,

jantzigela, egongela eta sukalde ederra. Gela guztiak kalera ematen dute, Iñigo de Loyola kalera eta Geltoki kalera. Sartzeko prest: 639 738 413.

Lan-eskariak

• Mutil bat eskaintzen da eraikuntzan, biltegietan edo nekazaritzan lana egiteko. Eskarmentua du. Afzal Muhammad, harremanetarako zenbakia: 667 80 89 34.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 25

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Larunbata, 26

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Igandea, 27

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Astelehena, 28

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Astearte, 29

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Asteazkena, 30

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Osteguna, 31

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Jaiotzak

• Lier Fernández Ostiz, martxoaren 15ean

Heriotzak

• Angel Lorenzo tolosa, martxoaren 20ean 46 urte zituela
• Jose Maria Zabala Oronoz, martxoaren 17an 77 urte zituela
• Wences Acuña Medina, martxoaren 17an 73 urte zituela

Telefonoak

Udala

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Zerbitzu Sozialak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Muntteri AEK euskaltegia	943 372863

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Diru laguntzen araudiari ekarpenak egin dizkio Ezker Abertzaleak

Arauean dagoen diru laguntzen politikari ere kritika zorrotza egin diote

Lasarte-Oriako Udalak diru laguntzen araudi berriari ekarpenak egiteko aukera eman du aurreko asteetan. Ziurrenik hainbat izan dira alderdi eta elkarteek eskainitako aukerak, Ezker Abertzaleko lagunek prentsaurrekoa batean haiek egin dakoak azaldu dituzte.

Ezker abertzaleko zinegotzien aburuz, diru laguntzen araudia beharrezko erreminta da, "baina hanka motz dago".

Arrazoiak


Zinegotzien ustez, "ordenantza hau aulkiaren hanka bat da, eta hala izanik bigarrena falta zaio: diru laguntzak arloz-arlo banatu edo emateko portzentajearen edo zenbatekoaren kriterioak finkatzea, argitzea eta zehaztea".

Baliabideak ez direla helburu izan behar eta euskara, kultura, kirola edo aisialdiaren sustapena dela garrantzikoena gogoratzen diote alkateari.

Gainera, araudi honetan, ardurak elkarten esku geratzen direla edo zenbait ataletan zehazpenak falta eta irekiegia dela azpimarratzen dute.

Ekarpenak

Gauzak honela, ezker abertzaleko zinegotziek diru laguntzak eskatzen dituzten arteko erregistro bat sortzea beharrezkoa dela ikusten dute.



Diru laguntzen eta hitzarmenen araudi berriari ekarpenak egin dizkio Ezker Abertzaleak.

Gainera, haien ustez, diru laguntzak ematearen ardura ez luke alkatearen edo batzorde buruaren gain soilik egon behar eta horretarako diru laguntzak erabakitzeke batzordearen osaketan pertsonako boto bat izatea proposatzen dute, "horrek aukera justu eta proportzionatuago lortuko lukeelako".

Kritika

Era berean, egun Udalak duen diru laguntzen banaketa politikarekin bat ez datozela adierazi zuten eta adibide bezala jarri zuten, kultur talde edo jardueri diru laguntzak emateko arautegia. "Hamargarren artikuluan hau dio: diru laguntzaren zenbatekoa,

aniztasun, herriko eragileekin adostasunez bideratzea".

Herri kulturaren garrantziaz ohartzea eskatzen diote alkateari, "Lasarte-Oriak bere nortasun eta izaeraren sustrietan altxor oparoa du. Herriarrek kulturaren, kirolaren, euskararen... defentsan jarrera aktiboa du, herri egiten gaituen ekintzak-jarrerak birsortu eta indartzeko, eta ezin da galtzen utzi."

Era berean, ekintza parte hartzaileak landu, suspertu, lagundu, ezagutari eta bermatu beharko liratekeela azpimarratzen dute, "denon arteko baldintza berdintasunean, ez baldintza diskriminatzailetan".

Lankidetzak

Era berean, ekimen desberdinak lankidetzan oinarritu behar direla uste dute eta eragileekin harreman zuzena bideratuz eta jarduera instituzionalerik, Udaletik bultzatuz, erronka "orain arte lortutakoa sendotu eta biderkatzea izan behar du," atxiki zuten.

Horretarako, herrian eta auzo guztietan mugimendu aktiboa indartu eta azken gehiegi bost urte hauetako inertziaren zama kentzea eskatzen diote alkateari.

Izan ere, Ezker Abertzaleko zinegotziak "ziur gaude, Zaballos jauna, herriko talde gehienak denak ez esateagatik, bide hau jorratzeko prest izango ditugula. Heldu izeaiozu erronkari". •

Esmeraldas-en aldeko elkartasun jaia larunbatean

Ostarte Gazte taldeak antolatuta larunbatean goiz eta arratsaldean elkartasun jaialdia egingo da gure herrian.

Gazte taldeak prestatu duen festaren helburua Adsis Fundazioak Ekuadorreko Esmeraldas lurraldean duen Ateak irekiz proiekturako dirua jasotzea da.

Proiektu honen bidez, Esmeraldas eremuko haur, gazte eta emakumeen hezikuntza eta aisia sustatu eta pobrezia egoeran dauden familien laguntza bermatu nahi du Adsis Fundazioak eta herriko gazte taldeak.

Merkatua eta tailerrak

Elkartasun festa hau goizeko 11:00etan hasiko da, Brigita-

ren plazan eta 14:00ak arte, egongo dira bertan.

Haurrentzako eskulan tailerrak; Bidezko Merkataritzako produktuak erosteko aukera; Bigarren eskuko produktuak salgai eta azken orduan, zozketa egingo dute Ostarte taldeko lagunek.

Saria produktu desberdinekin osaturiko saski bat izango da.

Honetaz gain, tabernatxo bat ere jarriko dute, haurran tailerrean dauden bitartean gurasoek zerbaite hartu dezaten.

Kontzertuak

Arratsaldean, berriz, Andatza plazara lekualdatuko da elkartasun jaialdi hau.

Bertan, 19:00etatik



Esmeraldaseko haur, gazte eta familiak festan bildutako diruaren onuradun izango dira.

23:00etara, kontzertuetaz gozatzeko aukera egongo da. Estilo desberdinetako taldeek, hala nola, *A Human Disaster*, *Tamerlayn*, *A pie de calle*

edo *Seventh string Donostia* eskainiko dituzte haien abes- tiak.

Eta hemen ere, txosna bat jarriko dute dirua biltzeko. •

APARKALEKUAK

Atsokabarrek 100 bat aparkaleku gehiago izango ditu aurki

Atsokabar auzoan aparkatzea errazteko asmoz, Lasarte-Oriako Udalak aparkalekuen zentzua aldatuko du, hau da, ilaran aparkatu beharrean baterian egingo da. Konkretuki Atsokabar Etorbidean eta Asteasuain kalean izango da eta horren ondorioz, auzoak 100 bat aparkaleku gehiago izango ditu aurki.

Jesus Zaballos alkateak azaldu duenez, "jakin badakigu lasarteiar askorentzako arazo handia bihurtzen ari dela udalerrian autoa aparkatzea eta Udalean zailtasun hori ahal dugun neurrian arintzeko lanean ari gara, zonaldeka aztertzen zein neurri hartu ditzakegun".

Datorren astean hasiko dira aparkaleku eremu berriak pintatzeko lanak, eta behin behineko aldaketak eragingo dituzte auzoan. Atsokabar auzoko bizilagun guztiei informazioa emango zaie portaletan jarriko den bando baten eta plano baten bidez.

Lerro hauen bidez, alkateak barkamena eskatu nahi du horrek sortu ditzakeen eragozpenengatik. •

UDALTZAINAK

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, lau bizikleta, hiru erloju, urrezko pultsera, erazten bat, diru zorro bat, neskaen esku-muturreko bat, bi zilarrezko pultsera, bi betaurreko graduatu bata zorroarekin, poltsa eta telefono mugikor bat, haur zamarra bat, bi larruzko zamarra eta belarririkoko batzuk.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horieta koren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara. •

UDALA

Obrak eta Hirigintza saila

Udalak gogorarazten du, Obrak eta Hirigintza sailaren bulegoak Ganbo Kaleko 1. zenbakian dagoen Udal Euskaltegi zaharrean dagoela, behin-behinean, harik eta "Udaletxea eraberritzea eta handitzea" obrak amaitzen diren arte. •



Haur eta gazteek Euskal Krosoko lasterketa desberdinetan parte hartuko dute.

Euskal Krosa igandean Atsobakarreko parkean

Landaberi ikastolako guraso elkarteak antolatzen duen XIV. Euskal Krosa egingo da igande goizean Atsobakar auzoko parkean Eneko Castroren oroimenez.

Goizeko 11:00etan hasiko diren lasterketa desberdinetan Lehen Hezkuntzako haur eta gaztekoek parte hartuko dute. Izan ere, parte hartzaileen adinaren arabera, ibilbideak luzera desberdina izango du.

Eta lasterketaren ostean, zozketa bidez, sariak banatuko dira.

Izena ematea

Partaidetza irekia da eta honela, herriko eta inguruko beste ikastetxeetako ikasleei gonbidapena luzatzen zaie krosaren parte hartu dezaten.

Gauzak honela, oraindik izena eman ez dutenek, igandean bertan, lasterketak hasi baino lehen aukera izango dute. •

Olmos eta Garrido Estatuko txapelketarako sailkatu dira

Borrokan brontzezko dominak eskuratu zituzten

LOKEko judo ataleko gazteak Estatuan, batetik bestera dabilta. Martxoaren 12an, Mario Garrido eta Josu Olmos Murtzian borroka txapelketan egon ziren; Leire Zubizarreta eta Esteban Martinez judo ligako jardunaldian parte hartu zuten Madrilén eta lehengo larunbatean, arestian aipatutako Mario eta Josuk Lezon izan zuten txapelketa.

Judo

Honela, larunbatean martxoaren 19an junior mailako Estatuko txapelketarako sailkapen saioa egin zen Lezon

Bertan Gorka Aristegik zuzentzen dituen Mario Garrido, 66 kilo azpiko mailan, eta Josu Olmos, 55 kilo azpiko mailan, sailkatu ziren Madrilén apirilaren 2an egingo den Espainiako txapelketa finalerako.

Era berean, martxoaren 12an, Leire Zubizarreta eta Esteban Martinezek Ama Guadalupeko taldearekin Madrilén ospatu zen taldeka-



Arg.: Gorka Aristegi

Josu Olmos eta Mario Garrido estatuko borroka txapelketan eskuratutako dominek.

ko ligako bigarren jardunaldian parte hartu zuten eta lan ona egin zuten biak.

Borroka

Eta egun horretan ere, borroka kadete eta senior mailako Espainiako txapelketa burutu zen Murtzian.

Bertan, LOKEko Mario Garrido eta Josu Olmos Eus-

kadiko selekzioarekin lehiatu ziren kadete mailan.

Biek hirugarren postua eskuratu zuten haien kategorietan, herrira brontzezko bi domina ekarri.

Herriko eta Euskadiko selekzioa osatzen zuten gazteen lorpenek, gure selekzioa kadete mailako garaile izatea ekarri zuen. •

Kiroletako agenda

■ FUTBOLA ■

Larunbata 26

10:30ean, Ostadar - Real Union (Kadeteen Ohorezko maila, igoera fasea) Michelinen.

12:00etan, Ostadar - Vasconia (Infantil txikiak, kopa) Michelinen.

13:15ean, Tolosa - Ostadar (Emakumezkoen KDT F-II, txapelketa fasea) Usabal, Tolosan.

13:30ean, Vasconia - Ostadar

(I. Kadetea, kopa) Puiu, Donostian.

15:00etan, Amaiak Bat - Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa) Errotazar, Deban.

15:30ean, Ostadar - Ordizia (Jubenilen Ohorezko maila, igoera fasea) Michelinen.

15:30ean, Santo Tomas Lizeoa - Ostadar (Erregional Gorena) Berio, Donostian.

15:30ean, Mariño - Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Ugalde-Ventas, Iruen.

15:30ean, Vasconia - Ostadar

(I. Jubenila, kopa) Puiu, Donostian.

17:15ean, Ostadar - Gure Txokoa (I. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.

Igandea 27

10:30ean, Ostadar - Astigarragako Mundarro (Infantilen Partehartzea, kopa) Michelinen.

10:30ean, Antiguoko - Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, txapelketa fasea) Berio, Donostian.

■ ARETO-FUTBOLA ■

Ostirala 25

HERRIKO TXAPELKETA

Finalerako Fasea, kiroldegian

20:00etan, Buenetxea - Epel

21:00etan, ISU Leioak - Ainhoa

Larunbata 26

18:00etan, Lakunza Garraioak - Aldaz H.K. (Nazional B maila) Olaederra kiroldegia, Billabonan.

HERRIKO TXAPELKETA

Ligaxka, Michelingo kirol gunean

11:00etan, Oriá Krist. - Morrison

12:00etan, Viña del Mar - IOB H.K.

Igandea 27

10:00etan, Gorka Pintura Makax - ISU Leioak (Gipuzkoako Liga, I. maila) Oiaro kiroldegia, Usturbinen.

■ PALA ■

Igandea 27

09:00etan, Mañel Ruiz eta Iñigo Arluziaga - Josu Iparragirre eta Koldo Rozas

09:45ean, Bernaitz Odriozola eta Santi Martín - Mañel Ruiz eta Iñigo Arluziaga

10:30ean, Imanol Bardají eta A.Zubizarreta - Peio Sarasola eta Jose Luis Urruzola

■ SQUASH ■

HERRIKO TXAPELKETA

18:00etatik aurrera

Ostirala 25

Xabier Amiano - Fernando Montero

Ivan Sancho - Raul Mateos

Astelehena 28

Iñaki Garcia - Xabier Amiano

Veronica Gonzalez - Ivan Sancho

Asteartea 29

Michel Zugasti - Agustin Erkizia

Joaquin Peña - Alberto Udabe

Asteazkena 30

Oinatz Iparragirre - Jon Linazisoro

Patxi Delgado - Oswal Cañedo

Osteguna 31

Emilio Hernandez - Xabier Linazisoro

Quinin Calvo - Javier Serrano

■ ATLETISMOA ■

Larunbata 26

16:30ean, herritar multzo batek Diego Garciaen oroimenezko XVIII. Azkoitia-Azpetia maratoi erdian parte hartuko dute.

Igandea 27

11:00etan, herriko gazte eta haurrek Euskal Krosa - Eneko Castro oroime-

nezkoan parte hartuko dute, Atsobakarreko parkean.

11:00etan, herritar multzo batek XV. Urnieta Adarramendi Urnieta proban parte hartuko du.

■ IGERIKETA ■

Larunbata 26

10:00etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko infantil, junior, promesa eta absolutuek udarako errendimenduko lehengo trofeoa jokatuko dute Paco Yoldi igerilekuan, Donostian.

16:00etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko benjamin eta alebinek Kirok Zehaztasuneko 4. jardunaldian parte hartuko dute, Kiroldegiko igerilekuan.

■ TXIRRINDULARITZA ■

Larunbata 19

10:30ean, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteek Zumaia Sarian parte hartuko dute.

16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako jubenilek Uzarraga XXXVII igoeran parte hartuko dute, Antzuolan.

16:30ean, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantilek Aizarnazabalgo Sarian parte hartuko dute.

Igandea 27

09:00etan, Ostadarreko zikloturistak irteera dute, Iraetara.

■ JUDO ETA BORROKA ■

Larunbata 26

Egun osoa, LOKEko junior eta infantil mailako gazteak Espainiako Borroka libreko txapelketan parte hartuko dute, Granadan.

Egun osoa, LOKEko Josu Olmos judokak Fuengirolako Nazioarteko judo txapelketan parte hartuko du kadete mailan.

Igandea 27

Goiza osoa, LOKEko junior eta infantil mailako gazteak Espainiako Borroka libreko txapelketan parte hartuko dute, Granadan.

■ BOLA-JOKOA ■

Igandea 27

Egun osoa, Ostadarreko bola joko taldeak Lehendakari txapelketako azken jardunaldia du, Ereñotzun.

■ ESKOLA KIROLA ■

Larunbata 26

09:30etatik 10:30era, Multikirola egiten duten Landaberi eta Sasoea-Zumaburu ikastetxeetako LH3 eta LH4 mailako benjaminen futbol topaketa dute, Michelingo kirol gunean.

Egunero

Erakusketa

SHANDRA PEREZ LUCEROREN margolanak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



Ostirala, 25

Kontzertua

BORJA BLUES-en kontzertua. Sustrai tabernan, 20:00etan.

Larunbata, 26

Festa

Ostarteko antolatuta, ELKARTASUN JAIA, ATEAK IREKIZ ESMERALDASEKO (Ekuador) PROIEKTUAN LAGUNTZEKO. Goizean bidetako merkataritza eta haurrentzako tailerrak egingo dira Brigita-



Abesti dantzatuak ikusteko aukera gaur kulturetxean

LASARTE-ORIA DANTZAN egitasmoaren barruan, *Mikel Urdangarin* musikariak eta *Trasposos Dantza Taldeak* "NORA" proiektua eskainiko dute.

Eider Mendizabal eta Ainara Biteri dantzariak, Mikel Urdangarin erreperatorioko hamar bat abesti taularatu dituzte, "abestien musika eta letraren emozioa jaso eta gure gorputzen bidez transmititzen saiatu gara".

Urdangarinekin (ahotsa eta gitarra) batera, Koldo Uriarte (tekladoa) eta Nika Bitchiashvili (bibolina) egongo dira.

GAUR, OSTIRALA 25
KULTURETXEAN 20:00ETAN
SARRERA, 6 EURO

rren pareko plazan eta arratsaldean, 19:00etatik aurrera kontzertuak Andatza plazan.

Antzerkia

"HELEN" haurrentzako antzerkia Panta Rhei taldearen esku-tik. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan. GAZTELANIAZ

Igandea, 27

Zinea

ENREDADOS haurrentzako filma. Sarrera, 3,30 euro. Kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.



Osteguna, 31

Zinea

UN PROFETA filma Okendo Zinema Taldearen esku-tik. Sarrera, 4,20 euro. Kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ

Oharrak

Etzeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, gaur, hilaren 25a, Lasarte-Oriako Etzerate kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Odol ateratzekak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzekak egingo dituzte Osasun Zentroan martxoaren 28an arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Bertso-afaria Arrieskalleta elkartearen

Apirilaren 1ean bertso-afaria antolatu dute Ttakunek, Bertso-eskolak eta Arrieskalleta elkarteak. Iluntzeko 21:00etan hasiko da afaria eta ostean Andoni Egaña eta Xabier Amuriza hasko dira kantari.

Joateko asmoa duenak, jakin txartelak dagoeneko salgai daudela Jalgi kafe-antzokian 20 euroren truke.

Eskolako estutxe bat galdu da

Eskolako estutxe bat galdu da, granatea, Kutxatik Euskotreneko geltokiaren bidean. Estutxearen barruan ahots grabagailu bat, 2 pendrive eta giltza bat zeuden besteak beste. Itzultzea sarituko da.

Harremanetarako telefonoa: 667 680 498 / 667 315 879 (Izaro, M^a Angeles).

Korrika 17ko arropa salgai

Korrika 17aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzerian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da euskararen lasterketa erraldoiaren amaiera arte.

Igerileku itxia egongo da larunbata arratsaldean

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazi du, igeri txapelketa dela eta Udal igerilekua datorren larunbatean martxoaren 26an, arratsalde 16:00tik 19:30era arte itxita egongo dela erabiltzaileentzat.

Kirol instalazioetako abo-natuek Andoain, 943 300 147, eta Usurbilgo, 943 372 498, igerilekuak erabiltzeko aukera izango dute.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekariaz (Geltoki kalea 4).

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Eskutitza

Lasarteko hainbat gazteren iritzia

Lasarte-Oriako udaletxea aspaldi hasita dago hurrengo hauteskundeetarako kanpaina egiten. Jakina da gaur egun udaletxearen agintzen dutenek nola egin ohi duten bere lana, berriz aukeratuak izan daitezten. Modu bisualean, gaur egun sistema honek agintzen duen eran, kanpoko fatxada ponpoxoa egin, nahiz eta barrua edo oinarria hutsa izan. Alegia, eraiki, dirua xahutu eraikin berriak eginez, hauek bete ditzaten beharrezkoak diren horrenbeste hutsune.

Gutun hau, honen harira idatzi dugu. Orain arte udaletxeak herriko gazteoi dagokiguneez egin duen lana, hutsa izan baita. Azkeneko aurrekontuetan gazteria saillean inbertitu den diru kopurua %0,27koa izan da. Eta diru honen erabilerak herriko gazterian izan duen eragina oraindik txikiagoa izan dela esan daiteke, gazteontzako antolaturiko kontzertu garestien argazkiak ikustea besterik ez dago.

Hau honela izanda, harritzekoa da Gazte lekua bezalako proiektu bat eraikitzen ikustea. Nondik datorkie ideia hau? Benetan egun, duela 10 urte ez genuen beharra al dugu herriko gazteok? Orain dela gutxi arte gogoz itxitako lokal autogestionatuen helburuak ez al zetozen bat herriko gazte lekuarekin? Gauzak honela, 1.000.000 euro pasa ordainduko dugu herritarrok, segur aski hauteskunde bezperatan bukatuko den eraikin berri batetan.

Eduki ditzakeen benetako helburuetan sartu gabe, badaezpada ere zenbait gauza eskatu nahi genizkiok udalari:

1. Honelako proiektu handi batean sartu aurretik, herritarren iritzia jaso behar lirateke. Alegia, herriko gazteriak honelako inbertsioa merezi duenik dudarik egin gabe, HERRI KONTSULTAK direla honelako erabaki handiak zuzenak izan daitezten bermatzeko modurik onena.

2. Gazte leku berria, eraiki aurretik landu beharrekoa dela iruditzen zaigu. Alegia, eraikina bera egituratzeko eta

bertako funtzio nahiz espazioak zehazteko herriko gazteon parte hartzea beharrezkoa dela. Guzti honen inguruko INFORMAZIO EZA ez da biderik egokiena.

Gainera, orain arteko udalaren jarduna ezagututa, jakin dezazuela gazteon ardura nagusia ez dela aisialdia, eta beraz eraikin berrian futbolin bat jartzearekin ez direla gure beharrak aseko. Bertako funtzioak zein izango diren jakin gabe, badaezpada ere gazteon zenbait behar betetzeko lekua izan beharko litzatekeela pentsatzen dugu:

1. Egungo krisia dela medio, langabezia gazteok zuzenean pairatzen dugun arazoa da. Udaletxeak gazteontzat lan politikak aktiboak egitea espero dugu eta Gazte leku hau aproposa da jardura hau aurrera eramateko.

2. Etxebizitza ugari eraiki arren herrian, gehienok ez dugu hauek ordaintzeko baldintza ekonomikorik ezta bizitza osorako hipotekatzeko gogorik ere. Udalak, etxebizitza politika aldatu eta alokairu merkeen alde egitea gustatuko litzaziguke. Honetarako ere,

alokairu bulego bat ezartzeko leku egokia iruditzen zaigu, higiezinaren eskaintza ez baita irtenbidea noski.

3. Gazteok egonezin asko izan ohi ditugu eta esperientzi berri askoren jo puntu izaten gara. Hau dela eta, sexualitatea, drogak eta beste mila egonezinen inguruan duda ugari izaten dugu. Honela, hauek informatzeko, ideiak kontrajartzeko nahiz eztabaizatzeko gunea izan beharko lukeela iruditzen zaigu.

4. Herriko eragile, musika talde, artista, ... etb gazteri, urtetan ukatu zaizkie lokalak beraien jardueretarako. Eraikin berri honek behar hauek ere bete beharko litzatekeela pentsatzen dugu.

Hauek, beste askoren artean benetako gazte leku bat sortzeko prozesuan aterako liratekeen ideia batzuk besterik ez dira. Baina, espero dezagun hemendik aurrera lana kontu pixka bat gehiagorekin egitea eta batez ere fatxada ponpoxo hori barrutik biziz betetzea.

Lasarteko ezker abertzalea



URTEURRENA
1935-2010



ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147
linterneriaillarreta@yahoo.es



ILLARRETA
ITURGIINTZA



TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752
USURBIL • illarreta@yahoo.es



- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua

IREKI BIDEA EZKERRARI

Abertzaletasunetik eta ezkerretik munduari irekiak.
Ezker abertzalea sendotzen eta XXI. mendeko ezker zibil eta zabala eraikitzen.

